



**Helburua.** Gipuzkoako ikastetxe ezberdinek, beraien ikastetxe eremuko orientazio mapa bat izatea, bertan orientazio jarduerak antolatu ahal izateko.

**Nola.** Ikastetxea, GOT-ekin harremanetan jartzen da, hurrengoa zehaztuz.

- **Eremua.** Hasiera batean, orientazio jarduerarako, ikastetxeak interesgarritzat jotzen duen eremua adieraziz. (google maps edo aireko argazki batean, eremua gutxi gora behera adieraziz)
- **Aurreikusten den erabilpena.**
- **Lehendik egindako orientazio jarduerak.** (Ikastetxeko ordutegian, eskola kirolean etab...)

**Prozedura.**

- Ikastetxeek Gipuzkoako Mendi Federaziora egingo dute eskaera, eta behin eskaera eginda, eskatutako hurrenkeraren arabera egingo dira mapa berriak.

**Zer jasoko du ikastetxeak**

- Orientazio mapa editagarria.
- Orientazio mapa maketatua, pdf formatuan. (Garbia, ibilbiderik gabea. Ondoren, ikastetxeak, software librearekin trazatzeko moduan)

**Baldintzak.**

- Gipuzkoako Mendi Federazioak mapa horiek erabili ahal izango ditu, eskola mendi programaren edo bestelako sustapen jardueretan.
- GOT edo beste elkarte batek, mapa hori erabili ahal izango du, taldeko sustapen jardueretarako, beti ere ikastetxeko eremuaren erabilera arauak jarraituz.
- Aurreikusitako erabilpena eman beharko dio mapari ikastetxeak eta horren berri eman beharko dio GOT eta GMF-ri, orientazio kirolaren sustapen ekintzen hedapenerako.

**Kostua**

- Mapa bakoitzaren kostua 200 euro ingurukoa izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko du.

**Iraupena**

- Egitasmoa finantzatzeko dirua egon bitartean, epea zabalik dago.